

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

Ingurumen ikerketa beka 2020-2021

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 20an egindako bileran honako erabakia hartu du:

Oñatiko Udalak Amalurra oinarri izanik, ingurumenaren eza-gutza handitzea du helburuetako bat. Udalerriko ingurumen alderdiak hobeto ezagutzeak, Amalurrarekin zerikusia duten politikak zein erabakiak modu jasangarriago baten hartzeko aukera emango du.

Halaber, ikerketa lanaren bitartez, pertsonen ingurumen prestakuntza praktikoa hartzea ere sustatu nahi da beka hauen bitartez.

Helburu horrekin, bi urtetik behin Ingurumen Ikerketa Beka gauzatzeko deialdia egiten du Oñatiko Udalak 2015a geroztik.

ERABAKITZEN DU

Lehenengo.

2020-2021 Ingurumen Ikerketa Bekaren deialdia onartzea.

Bigarren.

Onartzea aipatutako 2020-2021 deialdiaren finantziazioa: 12.000 €-ko gastua baimentzen da, 1106.480.172.01.01 2020 kontu sailaren kargura.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.

Bekaren oinarri arautzaileak aurreko deialdietako berdinak dira, hain zuzen, 2015eko martxoaren 26an Udal Osoko Bilkuran onartutakoak eta 2015/04/28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitarara eman zirenak.

Deialdi honen eranskin bezala argitaratzen dira.

Laugarren. Eskabideak aurkeztea: epea, agiriak eta modua.

Interesatuak eskaria egiteko eskabide-orrria Oñatiko udal-txean eskuratu behar dute eta epe barruan udal-txeko sarrera erregistroan aurkeztu, behar den bezala beteta eta ondorengo agiri hauekin batera:

1. Espediente akademiko zehaztua eta osatua. Lantaldeen kasuan partaide guztienak.
2. Curriculum vitae, titulazioa eta merituen egiaztagiriek. Lantaldeen kasuan, partaide guztienak.
3. Gaiaren azalpena eta lana zelan burutuko litzatekeen azaltzen duen memoria, ahalik eta zehatzena (15 orrialdekoa gehienez), ondokoak azalduz:

- Lanaren ikerketa esparrua.
- Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.
- Ikertzailearen edo taldearen aurreko esperientzia.
- Helburuak.
- Materialak, baliabideak eta lan metodologia.
- Lana garatzeko kronograma.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

Beca de investigación ambiental 2020-2021

La Junta de Gobierno Local reunida el 20 de febrero de 2020 ha adoptado el siguiente acuerdo:

El Ayuntamiento de Oñati teniendo como principio la madre tierra, uno de sus objetivos es aumentar el conocimiento del medio natural. Pues, un mayor conocimiento medio ambiental, permitirá la toma de decisiones y políticas más sostenibles en todas las materias relacionadas con la madre tierra.

Así mismo, a través de esta beca también se pretende fomentar la formación práctica en materia ambiental de la(s) persona(s).

Con ese objetivo, el ayuntamiento de Oñati convoca cada 2 años una Beca de Investigación Ambiental desde el año 2015.

RESUELVE

Primero.

Aprobar la convocatoria de la Beca de Investigación Ambiental 2020-2021.

Segundo.

Aprobar la financiación de la convocatoria de 2020-2021: se autoriza un gasto de 12.000 € a cargo de la partida 1106.480.172.01.01 2020.

Tercero. Bases reguladoras.

Las bases reguladoras de la beca son las mismas que en convocatorias anteriores, es decir, las aprobadas en el Pleno Municipal de 26 de marzo de 2015 y que se publicaron en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 28/04/2015.

Se publican como anexo a la presente convocatoria.

Cuarto. Presentación de solicitudes: plazo, documentación y forma.

Los/as Interesados/as deben adquirir la hoja de solicitud en el Ayuntamiento de Oñati y presentarla en el registro de entrada del Ayuntamiento dentro del plazo, debidamente cumplimentada y adjuntándose los siguientes documentos:

1. Expediente académico detallado y completo. En el caso de los equipos, los expedientes de todos sus componentes.
2. Curriculum Vitae, titulación y certificados de méritos. En el caso de equipos, los de todos los componentes.
3. El proyecto que se va a desarrollar, en el que se deberá especificar el tema y el modo de desarrollar el proyecto de investigación, lo más detallado posible (15 páginas como máximo), explicando lo siguiente:
 - Ámbito de trabajo de investigación.
 - Antecedentes y situación actual del tema.
 - Experiencias anteriores del/a investigador/a o el equipo.
 - Objetivos.
 - Materiales, recursos y metodología de trabajo.
 - Cronograma de desarrollo del trabajo.

- Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
- Bestelako finantzabideak, baldin eta baleude.
- 4. Eskatzaileen nortasun agiriaren fotokopia.

5. Entitate eskatzailea diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta 887/2006 Errege Dekretuan agertzen diren debeku arrazoietatik salbu dagoela. Aipatu erantzukizuneko adierazpena egin daiteke eskaera orriak erantsia duen erudian.

- 6. Banku edo aurrezki kutxa baten kontuaren zenbakia.

Horiez gain, beka emateko beharrezko deritzon datu osagarriak eska ditzake Udalak. Eskabideak edo dokumentazio lagungarriak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie atzemandako akatsak konpontzeko (39/2015 Legearen 68.1 art.). Epea igarota, horrelakorik egin ezear, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere 39/2015 Legearen 93 eta 94 artikuluetan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

2020-2021ko deialdira aurkezteko epea 2 hilabetekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Bosgarren.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Juntari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Oñati, 2020ko otsailaren 27a.—Alkatea. (1523)

ERANSKINA

Ingurumen Ikerketa Bekaren oinarri arautzaileak.

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauen helburua da Oñatiko udalerraren eremuan ingurumen arloko azterketak bultzatzea.

Bi urtetik behin egingo den deialdian ezarriko da gai konkretua, beti ere, esparru edo arlo hauen artean:

a) Lurraldearen ingurumen-hobekuntzan, espezieen Kontserbazioan edota horien habitatean zuzeneko eragina duten azterketak (ur ekosistemak, espezie inbaditzaileak, mehatxatutako espezieak, kutsadura, etab.).

b) Ingurumen-arazoak (kutsadura atmosferikoa, aldaketa klimatikoa, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa, etab.) ezagutu eta horiei aurrea hartu eta konpontzeko ikerketak edo ekimenak.

c) Udalaren Ingurumen Politikarekin bat etor litezkeen bestelako azterlanak (zero zabor, mugikortasun jasangarria, basogintza eredua).

- Resultados previstos y su interés.
- Otras fuentes de financiación, si hubiere.

- 4. Fotocopia del documento de identidad del/a solicitante.

5. Documentación acreditativa de no concurrir en la entidad solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas la Ley General 38/2003 y en el Real Decreto 887/2006. La declaración responsable a la que hace referencia la base podrá hacerse en el modelo anexo al impreso de solicitud.

- 6. Número de cuenta bancaria o cuenta corriente.

Además de los anteriores, el Ayuntamiento de Oñati podrá solicitar documentación complementaria que considere necesaria. Cuando la instancia de solicitud o la documentación que debe acompañarla adoleciera de algún error o fueran incompletas, se otorgará a los interesados un plazo de diez días para subsanar los defectos detectados (art.68.1 de la Ley 39/2015), transcurrido el cual, sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidos de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en los artículos 93 y 94 de la Ley 39/2015.

El plazo de presentación para la convocatoria de 2020-2021 será de 2 meses, contados desde el siguiente día a la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Quinto.

Esta resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa.

Los interesados podrán interponer recurso contencioso administrativo contra esta resolución en los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Oñati, a 27 de febrero de 2020.—La alcaldesa. (1523)

ANEXO

Bases reguladoras de la Beca de Investigación Ambiental.

Artículo 1.º Objeto.

Es objeto de las presentes bases fomentar los estudios sobre el conocimiento en temas medio ambientales en el ámbito del municipio de Oñati.

En cada convocatoria bienal se establecerá el tema de investigación, no obstante, de acuerdo a los siguientes ámbitos o temáticas:

a) Estudios que tengan una influencia directa en la mejora del medioambiente, en la conservación de las especies, así como en su hábitat (ecosistemas fluviales, especies invasoras, especies amenazadas, contaminación, etc.).

b) Estudios o iniciativas que sirvan para conocer, hacer frente o solucionar los problemas medio ambientales (contaminación atmosférica, cambio climático, ahorro y eficiencia energética, etc.).

c) Otras acciones que pudieran alinearse con la Política Ambiental del Ayuntamiento de Oñati (cero residuos, movilidad sostenible, política forestal).

Proiektu horiek guztiak Oñatiko udalerrri barruan gauzatu behar dira.

2. artikulua. 2020-2021ko deialdirako gaia.

2.1. Testuingurua.

Udal Gobernu Taldearen helburu estrategikoa da lehen sektorearen sustapen- eta bultzatze-politikari dagozkion ekintzak ezartzea, indarrean diren ekintza lerroak osatzen dituztenak.

Nekazaritzaren izaera multifuntzionala (lurraldea eta paisaia kudeatzea, ingurumena babestea, animalia-arraza autoktonoak gordetzea eta nekazaritza-gizarte eta -kulturrari eustea) inork gutxi zalantzan jartzen du. Funtzionaltasun hori ordea kokolan dago lehen sektoreak bizi duen gainbehera dela eta. Aipatutako lehen sektorearen gainbeherari eusteko ordea, adibidea praktikoa edo egitasmo nahikorik ez dago.

Hain zuzen, Nekazaritza eta Elikagai-gintza Politikako 17/2008 Legearen xedeetako bat da nekazaritza-lurra babestea, ez balio agronomiakoagatik soilik, baita biodibertsitatearen eta paisaiaren euskarri eta berme delako eta desertifikazio- eta higadura-arriskua murrizten edo eragozten duelako ere.

Legearen jarraibideetako bat da nekazaritzaren izaera multifuntzionala babestu nahian, EAEko nekazaritza-ustiategiek nekazaritza-jarduerak betetzen dituen ingurumen- eta lurralde-funtzioekin bat datozen ekoizpen-ereduak garatuko dituzten administrazio-politikak bermatzea. Ingurumen-funtzioak ingurumena, baliabide naturalak, ekosistemak eta nekazaritza-paisaia babesteari lotutakoak dira; lurralde-funtzioak, berriz, lurralde-oreka gordetzeko eta nekazaritza-guneetako sare sozioekonomikoari eustekoak.

Ilido horretan, nekazaritza-lurren funtsak osatzea lehentasunezko jarduna kontsideratu daiteke. Funts horretan sar litezke Udalaren lursail patrimonialak zein gutxiegi erabiltzen edo utzita dauden nekazaritza-lur pribatuak.

Oñatiko nekazaritza-lurren funtsen aktiboak hainbat helburutara bideratu ahalko liriteke:

- a) Nekazari gazteak finkatzera.
- b) Nekazaritza-ustiategi berriak sortzera, landa-guneetako exodoa eragozteko.
- c) Egun martxan diren nekazaritza-ustiategiak handitzera.
- d) Nekazari-herririk edo lursail-eremuak sortzera, bertan nekazaritza-jarduerak gauzatu ahal izateko.
- e) Nekazal-kooperatibak sortzea.

2.2. Gaia.

Hori guztia kontuan izanda, 2020-2021 ingurumen azterketaren gaia honela zehaztu da: nekazaritzaren zein abeltzaintzaren izaera multifuntzionala eusteko helburuarekin (lurraldea eta paisaia kudeatzea, ingurumena babestea, animalia-arraza autoktonoak gordetzea eta nekazaritza-gizarte eta -kulturrari eustea) Udalaren lursail patrimonialen zein udalerrian gutxiegi erabiltzen edo utzita dauden nekazaritza-lurren azterketa eta ekintzarako aukerak.

3. artikulua. Onuradunak.

Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari-arduradun bat izendatu behar da.

Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da diplomaturik edo maila horretako tituluduna edo goi mailako tituluduna izatea. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete behar du baldintza hori.

Todos los proyectos deben ejecutarse dentro del municipio de Oñati.

Artículo 2.º Tema para la convocatoria 2020-2021.

2.1. Contexto.

Es un objetivo estratégico del Grupo de Gobierno Municipal establecer las acciones correspondientes a la política de fomento e impulso del sector primario, que complementan las líneas de actuación ya consolidadas.

El carácter multifuncional de la actividad agraria (la gestión territorial y paisajística, la protección medioambiental, y la conservación de razas de animales autóctonos y de la sociedad y cultura rural) casi nadie lo pone en duda. Sin embargo, dicho carácter multifuncional está en riesgo debido al declive que sufre el primer sector. Faltan ejemplos o actuaciones prácticas, para poder frenar el citado declive del primer sector.

Precisamente, uno de los fines de la Ley 17/2008 de Política Agraria y Alimentaria es la defensa del suelo agrario no sólo por su valor agronómico, sino como soporte y garante de la biodiversidad y el paisaje, así como por su capacidad para frenar o evitar procesos de desertización y erosión.

Una de las directrices de la Ley es con el objeto de preservar el carácter multifuncional de la agricultura, las administraciones agrarias vascas garantizarán que las explotaciones agrarias vascas desarrollen modelos de producción acordes con las funciones ambientales y territoriales que desempeña la actividad agraria. Las funciones ambientales son las referidas a la protección del medio ambiente, los recursos naturales, los ecosistemas y los paisajes agrarios, y las funciones territoriales, las referidas a su valor para preservar el equilibrio territorial y conservar el tejido socioeconómico de los espacios rurales.

En esa línea, la creación de fondos de suelo agrario puede considerarse como una actuación prioritaria. Dentro de ese fondo podrían meterse los suelos patrimoniales del Ayuntamiento y los suelos agrarios infrautilizados o abandonados privados.

Los activos del fondo de suelo agrario de Oñati se podrían destinar a los siguientes fines:

- a) Asentamiento de personas jóvenes dedicadas a la agricultura.
- b) Creación de nuevas explotaciones agrarias para evitar el éxodo rural.
- c) Ampliación de las explotaciones agrarias ya existentes.
- d) Creación de agroaldeas o polígonos de parcelas con capacidad para soportar actividades agrarias.
- e) Creación de cooperativas agrarias.

2.2. Tema.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, el tema de la beca de investigación ambiental 2020-2021 se ha definido de la siguiente manera: con objeto de sostener el carácter multifuncional de la agricultura y ganadería (la gestión territorial y paisajística, la protección medioambiental y la conservación de: razas de animales autóctonos, de la sociedad y cultura rural) el estudio de los suelos patrimoniales del Ayuntamiento y de los suelos agrarios infrautilizados o abandonados y propuesta de actuaciones posibles.

Artículo 3.º Beneficiarios.

La beca podrá ser individual o podrá recibirla un equipo conformado para ese fin. En el segundo caso, se deberá nombrar un/a director/a responsable del trabajo de investigación.

Para recibir la beca es imprescindible ser diplomado/a o disponer titulación del mismo nivel o superior. En caso de ser un equipo, deben cumplir dicho requisito al menos la mitad de los miembros.

Eskatzaileak bere euskarako gaitasuna frogatu beharko du EGA edo baliokide* den titulu edo ziurtagiri bidez. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipaturako gaitasuna.

* (Kontuan izan, 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskaramaila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena; 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak balio-kidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituen).

4. artikulua. Esleipen prozedura.

4.1. Epaimahaia/batzordea.

Beka hau Oñatiko Tokiko Gobernu Batzarrak esleitu du, Ingurumen Batzordearen proposamena jaso ondoren.

Proposamen hori Ingurumen Batzordeak epaitutako merezimu lehiaketa baten emaitza oinarritzat hartuta egingo da.

Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie.

Ingurumen Batzordeko kideez gain, batzordeak hala erabakiko balu, aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituen laguntza eta aholkularitza eska dezake. Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, batzordeak informazio osagarria eskatu dezake edota hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.

Halaber, Ingurumen Batzordeak libre du deialdia hutsik uztea, baldin eta, proposamenek adinako interesik edo kalitateirik lortu ez dutela irizten badio.

4.2. Baloratzeko irizpideak.

Eskaera egin duen pertsonak/ek ikerketa lanak egiteko dituen ezagupenei, prestakuntzari eta eskarmentuari begiraturik dio batez ere hautaketa batzordeak, eta baita pertsona horren konkrezio eta adierazpen gaitasunari, bekak eskatzen duen lana egiteko denbora eskaintzeko modua izateari eta ikerketa lana egiteko proposatutako interesari eta ikuspegiari ere. Horretarako, balorazio irizpide eta puntuazio hauek hartuko ditu aintzakotzat hautaketa batzordeak.

A) Ikerketa lanaren kalitate orokorra (70 puntu gehienez).

– Ikerketa proiektuaren planteamendua (40 puntu gehienez).

– Ikerketa lanaren argitasuna eta bideragarritasuna, metodologia eta kronograma ere sartuta (30 puntu gehienez).

B) Eskatzaileen espediente akademikoa eta bere curriculum (20 puntu gehienez).

C) Oñatiko udalerraren ezagutza (10 puntu gehienez).

50 puntura ailegatzen ez diren proposamenak atzera botako dira.

Batzordeak horrela erabakiko balu, aukeratutako hautagaiei elkarrizketa egiteko aukera izango du, egindako proposamena azaldu eta defendatzeko bidea izan dezaten.

Elkarrizketa horretan, aurkeztutako memoria edo proposamena azaldu eta defendatu behar da, eta ikerketa lanaren emaitzen eta lana burutzeko bideragarritasunaren arabera neurtuko da horren kalitatea. Batzordeak libre du elkarrizketa horretan galderak egitea bai azaldukoaz, bai bekaren gaiaz eta baita hor baloratutako alderdiez ere.

Eskatzailearen puntuazioa, batzordekide bakoitzaren eta teknikariaren puntuak gehitu eta batez bestekoa izango da. Epaimahaikide guztiek dute hitz egiteko eta puntuazioa jartzeko eskubidea.

El/la solicitante deberá acreditar su competencia en euskara por medio del EGA o un título o diploma equivalente*. En caso de los equipos, todos sus miembros deberán acreditar la competencia arriba indicada.

* Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación de títulos y certificaciones lingüísticas en euskera. Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Artículo 4.º Procedimiento de resolución.

4.1. Jurado/comisión.

La beca presente la adjudicará la Junta de Gobierno Local, una vez oída la propuesta de la comisión de Medio Ambiente.

Dicha propuesta se basará en el resultado del dictamen de la comisión de Medio Ambiente en base al resultado del concurso de méritos.

La resolución se notificará a tod@s los solicitantes.

Además de los miembros de la comisión de Medio Ambiente, siempre que la Comisión lo considere oportuno, el jurado tiene la facultad de solicitar la colaboración y asesoramiento de personas expertas en el ámbito al que se refiere la beca.

Así mismo, la comisión de Medio Ambiente puede dejar desierta la convocatoria siempre y cuando considere que ninguna propuesta tiene suficiente calidad o interés.

4.2. Criterios de valoración.

El Comité de selección valorará especialmente los conocimientos, formación y experiencia de la persona/s en la realización de trabajos de investigación, así como su capacidad de concreción y expresión, sus posibilidades de dedicación al trabajo objeto de la beca, y el interés y enfoque de la propuesta del trabajo de investigación. Para ello, se tendrán en cuenta los siguientes criterios de valoración, atendiendo a la puntuación asignada a cada uno de ellos:

A) Calidad global del trabajo de investigación (hasta 70 puntos).

– Planteamiento del proyecto de investigación (hasta 40 puntos).

– Claridad y viabilidad del trabajo de investigación, incluida la metodología y el cronograma (hasta 30 puntos).

B) Expediente académico y curriculum del solicitante (hasta 20 puntos).

C) Conocimiento del municipio de Oñati (hasta 10 puntos).

Las propuestas que no alcancen un mínimo de 50 puntos serán desestimadas.

Si la comisión así lo decidiera, las candidaturas preseleccionadas podrán ser convocadas a una entrevista en la que podrán exponer y defender su propuesta.

En la entrevista la persona solicitante deberá hacer una exposición y defensa de la memoria o propuesta presentada, valorándose la calidad de la misma en base a los resultados del trabajo de investigación y a la viabilidad de la conclusión del mismo. El Comité podrá formular preguntas sobre lo expuesto, sobre el objeto de la beca y sobre los aspectos valorados en la misma.

La puntuación lograda por cada solicitante será la media de la suma de puntos adjudicados por cada miembro del jurado y el técnico. Todos los miembros del jurado tienen el derecho a opinar y adjudicar puntos.

Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio, baldin eta, Ingurumen Batzordeak horrela erabakiko balu.

Ingurumen Batzordeak eskaerak aztertu eta ebaluatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari ebazpen-proposamena bidaliko dio.

Tokiko Gobernu Batzarrak eskaerak aztertu ondoren eta ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero, beka-aren esleipena egingo du.

5. artikulua. Ebazpena.

Hautaketa batzordeak, balorazioa aintzakotzat hartu eta esleipen proposamen bat egingo du.

Esleipen proposamen horretan, aukeratutako pertsona eta ordezkoen zerrenda ere adieraziko du, aukeratutako pertsona uko egiten badio ere, eta baita baztertutako eskaerak ere, zergatik utzi diren hala zehaztuta. Era berean, deialdia hutsik gertatzea ere adierazi dezake batzordeak hala irizten badio.

Hautaketa batzordearen proposamen hori Gobernu Batzarrari bidaliko zaio, eta hark emango du ebazpen adierazi bat, beka ematearena edo, hala badagokio, deialdia hutsik uztearena. Ebazpena, aukeratutako pertsonari jakinaraziko zaio, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ere argitaratuko da.

Erabakitze eta erabakitakoa jakinarazteko ez da hiru hilabete baino gehiago izango, oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Denbora hori pasa eta erabakia dena delako pertsonari jakinarazi ez bazaio, beka eskaera atzera bota dela jotzeko bidea izango da, 39/2015 Legeak, Administrazio Prozedura Erkidearenak, 25.1 artikuluan jartzen duen bezala.

6. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Oinarri hauetan aurreikusitako beka bateragarriak dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin; betiere, diru-laguntzen guttizkoak jardueraren kostua gainditzen ez badu, ez banaka ez beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera.

7. artikulua. Ordainketa.

Ordainketa hiru zatitan egingo da. Aurrenekoa, diruaren % 30a, ebazpena hartutakoan; bigarrena, beste % 40, aurreneko 12 hilabeteak pasa eta gero aurkeztu behar den txostenari oniritzia emandakoan; eta hirugarrena, % 30a, bekaren ikerketa lana jaso eta balioetsitakoan.

Oinarri hauetan edo beka ematean ezarritako betebeharrakoren bat bete ezean, diru-laguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, Oñatiko Udalak beka baliogabetu edo gutxitu ahal izango du eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten duen baldintzetan.

Ikerlanak sor ditzakeen gastuak bekadunaren kontura joko dira.

8. artikulua. Bekadunen betebeharrak.

1. Bekaren onarpena adieraztea eta sinatzea emakida jakinarazi eta 10 eguneko epean.

2. Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren araberrako txosten bat bidaltzea bekaren lehen 12 hilabeteak igarotakoan edo lehenengo urtearen bukaeran.

Se le otorgará la beca al solicitante que obtenga la mayor puntuación. En caso de que renunciara, se le propondría al siguiente, siempre y cuando así lo estimara la Comisión de Medio Ambiente.

Una vez estudiadas y evaluadas las solicitudes La Comisión de Medio Ambiente presentará su propuesta de resolución a la Junta de Gobierno Local.

La Junta de Gobierno Local una vez estudiadas las solicitudes y comprobado que cumplen con las condiciones impuestas, otorgará la beca.

Artículo 5.º Resolución.

El Comité de Selección, en función de la valoración efectuada, elevará una propuesta de adjudicación.

En ella constará la persona seleccionada, así como una relación de solicitudes suplentes, para el caso de que se produzca alguna renuncia por parte de la persona y una relación de solicitudes excluidas precisando la causa de la exclusión y, en su caso, la declaración de convocatoria desierta.

La propuesta de adjudicación del Comité de Selección será elevada a Junta de Gobierno, quien dictará Resolución expresa de concesión de la beca, así como, en su caso, declaración desierta de la convocatoria. La resolución será notificada individualmente a la persona seleccionada, así como publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

El plazo máximo para resolver y notificar la Resolución será de tres meses a contar desde el día siguiente al de la fecha de publicación de las presente Bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Si transcurrido este plazo no hubiera sido notificada a la persona, podrá entenderse desestimada la petición de beca, de conformidad con lo establecido en el artículo 25.1 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 6.º Compatibilidad con otras ayudas.

Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre y cuando, el importe de las subvenciones en ningún caso, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Artículo 7.º Pago.

El pago se efectuará en tres partes. El primer pago, el 30 % de la cantidad total, en el momento de la concesión de la beca. El segundo pago, el otro 40 % de la cantidad total, a los 12 meses de la concesión de la beca y una vez que el tribunal apruebe el informe a presentar. El tercer pago, el 30 % de la cantidad total, al finalizar la beca, tras la presentación de la memoria final y ser aprobada por el tribunal.

En caso de incumplimiento de alguna condición establecida en estas bases o en las impuestas al otorgar la beca, se revisará la subvención y en base a ella, el Ayuntamiento de Oñati podrá anular o reducir la misma, o pedir su devolución, todo ello conforme a la Ley General 38/2003 de 17 de diciembre: artículos 37 y 52.

Los costes que pudiera generar el trabajo de investigación serán a cargo del becario.

Artículo 8.º Obligaciones de las/los becarias/os.

1. Comunicar y firmar la aceptación de la beca en el plazo de 10 días, a partir de la comunicación de la concesión.

2. Presentar un informe a los 12 meses de la concesión de la beca o al final del primer año en el cual se refleje el desarrollo del trabajo de investigación (trabajo realizado hasta la fecha y lo que falta para su finalización).

3. 2021eko abenduaren 31rako ikerketaren amaiera-lana aurkeztea.

4. Oñatiko Udalaren esku egotea egindako lanen ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.

5. Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketan berri ematea. Halakorik ezingo da egin Oñatiko Udalaren baimenik gabe.

6. Bekaren amaieran memoria (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) aurkeztea. Lan horren hiru ale entregatuko dira, tarte bikoitzez mekanografiaturik, koerlatiboki orrialdeztatua eta koadernaturik, baita euskarri informatikoan ere.

7. Ikerlana entregatzeko azken epea betetzen ez bada, justifikazio edo gainditu ezinezko arrazoirik gabe, penalizatu ahal izango da. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez. Bekaren % 8ko murrizketa egin ahal izango da, hil bakoitzeko atzerapenagatik.

8. Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen duten deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gazteleraz.

9. Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Oñatiko Udala eta lanaren egilearen artean eguna eta ordua adostuta.

10. Oñatiko Udalaren laguntza izan dela adieraztea beka argitaratzekoan eta egindako lanaren publizitatea egiten den guztian.

Horretarako, Oñatiko Udalaren logoa jarri behar da publizitatea egiteko erabiltzen den euskarrian. Oñatiko Udalari eskatu behar zaio marka.

9. artikulua. Bekaren iraupena.

Beka bukatuko da 2021eko abenduaren 31n.

10. artikulua. Txostenak eta jarraipen bilerak.

Ingurumen Batzordeko teknikariak ikerketa lanaren jarraipena egingo du.

Hala, bi hiletik behin bilera bat izango da, ikerketa lanaren jarraipena egiteko. Ikerketa lana hasi eta 12 hilabetera (edo urte bukaeran), memoria-txosten bat aurkeztuko da.

Lanaren jarraipenean egindako bilera zein txostenen berri Ingurumen Batzordean kontu emango dira.

11. artikulua. Lanen jabetza.

Lanen jabea Oñatiko Udala izango da. Udalak berarentzat gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez.

Beti ere, lanaren egilea edo egileak aipatu beharko ditu.

Sortutako materiala aurkeztu eta 3 urteko epean Udalak argitaratu ez badu, egileak edo egileek material hori erabili ahal izango du(te) egokien iruditzen zaio(e)na egiteko. Egileak edo egileek orduan, jasotako bekaren aipamena egin beharko du(te) (bekaren eta beka eman duen erakundearen izenak jarritz) eta Udalari argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkio.

12. artikulua. Interpretazioa.

Araudi honen interpretazioan, ezarpenean eta ondorioetan sor litezkeen zalantzak Udal Tokiko Gobernu Batzarrak ebartziko ditu, araututako laguntzaren gainean erabakitze organo eskuduna dena.

3. Presentar el trabajo final de investigación para el 31 de diciembre de 2021.

4. Facilitar el acceso del Ayuntamiento de Oñati a las notas, borradores, trabajos previos y resultados del trabajo de investigación.

5. Comunicar cualquier cambio en el plan previsto o la composición del equipo de trabajo. No se admitirá ningún cambio de dicha índole sin el permiso del Ayuntamiento de Oñati.

6. Presentar el informe final (redacción final del trabajo de investigación). Se deben presentar 3 ejemplares del informe, mecanografiados a doble espacio, con paginaciones correlativas y encuadradas. También se debe presentar el trabajo en soporte informático.

7. Si hubiera incumplimiento de plazo por parte del becario en la presentación de la memoria final, sin justificación o razón insalvable, podría haber penalización. El jurado decidirá si la justificación presentada es suficiente. Se podrá aplicar un descuento del 8 % por cada mes de demora en la presentación de la memoria final.

8. El autor de la memoria deberá incluir un resumen de 30 líneas que recoja el contenido y los descriptores de la memoria, en euskara y castellano.

9. El autor al finalizar el proyecto hará una presentación pública, para la cual acordarán la fecha y la hora con el Ayuntamiento de Oñati.

10. Hacer constar, en la publicación y en cuanto publicidad se efectúe del trabajo realizado, la colaboración del Ayuntamiento de Oñati.

Para ello, se reproducirá la marca del organismo, que se colocará en el soporte publicitario. La marca podrá ser solicitada en el Ayuntamiento de Oñati.

Artículo 9.º Duración de la beca.

La beca finalizará el 31 de diciembre de 2021.

Artículo 10.º Informes y reuniones de seguimiento.

El técnico de medio ambiente realizará el seguimiento del trabajo de investigación.

Cada dos meses se mantendrá una reunión de seguimiento del trabajo de investigación. A los 12 meses de iniciar el trabajo de investigación (o al final de año) se redactará un informe-memoria.

Tanto las reuniones de seguimiento como de los informes se darán cuenta en la comisión de Medio Ambiente.

Artículo 11.º Propiedad de los trabajos.

El propietario del trabajo fruto de la beca será el Ayuntamiento de Oñati. El Ayuntamiento se reserva el derecho de reproducir o publicar parcialmente o en su totalidad el trabajo cuando lo crea oportuno, por su cuenta o en colaboración mediante acuerdo con otras entidades.

Deberá mencionar siempre al autor o autores.

Si en el plazo de 3 años a partir de la presentación de la memoria final el Ayuntamiento no ha publicado el trabajo, el autor o autores podrán utilizar dicho material para lo que crean oportuno. En dicho caso el autor o autores deberán hacer mención de la beca recibida (mencionando el nombre de la beca, la entidad que lo adjudica y sus colaboradores) y darán 20 ejemplares del trabajo publicado al Ayuntamiento.

Artículo 12.º Interpretación.

La resolución de las dudas que pudieran surgir respecto a la interpretación, puesta en vigor o efectos de estas bases corresponderá a la Junta de Gobierno Local, por ser el órgano competente en las resoluciones sobre las subvenciones reguladas.

13. artikulua. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauetan arautu gabekoei, lege eta arautegi hauek ezarriko zaizkie:

– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

– 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

– 38/2003 Legea, diru-laguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege dekretua, lege horren arautegia onartzen duena.

– Oñatiko Udalak diru-laguntzak arautzeko duen Ordenantza Nagusia (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2009ko martxoaren 23koa, 54. zk.).

Errekurtsoak.

Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

14. artikulua. Publizitatea.

Kontu-hartzailletza departamenduak emandako beka Udalaren web orrian eta udaleko iragarki-oholean argitaratuko da.

Artículo 13.º Normativa aplicable.

Además de lo establecido en estas bases, esta subvención será regulada por:

– Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

– Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

– Ley 38/2003 General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006, por el que se aprueba el Reglamento de dicha Ley.

– Ordenanza general Reguladora del otorgamiento de subvenciones por el Ayuntamiento de Oñati (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 23 de marzo de 2009 n.º 54).

Recursos.

Las personas interesadas podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que las haya aprobado, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Artículo 14.º Publicidad.

La beca concedida será publicada en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios municipal por el departamento de Intervención.